

# Goierri tarra

293. zenbakia 2006ko urtarrilak 13

## SAGARDOAREN MAGIA

Historian zehar errepaso eginez



# ITOIZ


Artisautza produktuak eta Gazte Moda

URTEBETE ZUEI ESKER!

San Inazio 6

BEASAIN

Tel.: 943 027 520






**BEROGAS**

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA  
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK  
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK  
BERRIKUNTZA LANAK  
GREMIO GUZTIEN ARDURA

**BERÓGAR**



SUKALDEKO ETA  
BAINUKO ALTZARIAK



**BULEGOAK-LANTEGIA**  
USABAL, 11-A  
TOLOSA  
Tel.: 943 672 620

**POLIURETANOZKO LEIHOAK**

**ERAKUSKETAK:**  
SAN FRANTZISKO, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 653 307




*Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:*  
**I. Fdez Or naburu Dra.**  
(Medikuntza estetikoan masterra)  
**A. Ramirez Baigorri Dra.**

*Kursal*

**ZENTRO MEDIKUA**

**943 88 22 51**

Garmendia Otaola, 7 - behea  
**BEASAIN**



R.P.S.:3204

## GOIERRITARRA aldizkaria albiste

Ale honetatik aurrera, Goierriko Hedabideak SL enpresak argitaratuko du GOIERRITARRA hamabostekaria. Enpresa hori 2004an sortu zuten Goierritarrak kultur elkarteak, Zintzo Mintzo euskara elkarteak, Goierriko hainbat gizarte eragilek eta Bertako Hedabideek (EKT), Goierriko Hitza egunkaria argitaratzen hasteko.

Indarrak batu eta eskualdeko sektorea hobeto antolatu nahi da. Kostuak eta baliabideak optimizatuz hizkuntz normalizazioan ahalik eta eraginkorren izango diren produktuak

kudeatu nahi dituzte Goierriko Hedabideek, eta horretarako bi produktuen arteko koordinazio are eta handiagoa bilatuko da.

### Aldaketarik ez

Gestio kontuak alde batera utzita, irakurleak ez du aldaketarik nabaritu Goierritarra aldizkariaren aldi berri honetan. Itxuraz eta edukiz berdin jarraituko du, beti ere, ahalik eta kalitate onenekoa izanez, Goierri eta goierritarrei zerbitzua eskainiz, eta euskaraz bizi ahal izateko pausoak emanez.

### Banaketa

Hori bai, aldizkariaren banaketan, pixkanaka eta ahal den neurrian, aldaketa izango da. Orain arte Correos bidez iristen zen GOIERRITARRA etxeetara, eta hemendik aurrera, herri handiengan, Etxeraino enpresaren bidez egingo da etxez etxeko banaketa. Oraingoz, herri txikiengan Correos bidez banatzen jarraituko da.

Beraz, hemendik aurrera ere, banaketan arazoren bat izanez gero, deitu lasai eta arazoa konpontzen saiatuko gara.

## Goierritarra

### HAMABOSTEKARIA

#### Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea  
BEASAIN

#### Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

#### Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga  
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

## AURKIBIDEA

**4. Iritzia:** Xabier Mendiguren

**5. Ingurugiro txokoa:** Merkataritza, ez laguntza

**7. Kate motzean:** Unai Altolagirre

**8. Erreportajea:** Beasaingo, Ordiziako eta Lazkaoko Mintzalagunak

**12. Erreportajea:** Sagardoa: Euskal Herriko edari magikoa

**18. Erreportajea:** Gueske, Esperientziaren Eskolako ikasle ohien elkarteak.

**22. Gazteleku:** Mikel Zurutuzaren ipuina

**23. Agenda.**

**24. Debaldeko iragarkiak.**

**26. Argazki zaharra.**



### Goierritarra Goierriko kanpo jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro  
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro  
Europaz kanpo: urtean 39 euro

### Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Gaintza,  
Itsasondo, Ormaiztegi Zaldibia eta  
Zeraingo udalak





Xabier Mendiguren  
Elizegi

*Immigrazio-  
herri ala  
emigrazioz-  
koa?*

*Zenbakitan ez  
nuke jakingo  
esaten ze talde  
den ugariagoa,  
etorkinena ala  
"joakinena",  
hitz jokoia  
onartzen  
badidazue.*

## Etorkin eta joakin

**N**oiz egoten dira Beasaingo kaleak kotxez beteenak? Hola, azkar esanda, bi garai bururutzen zaizkit niri: herriko festak, batetik, eta gabon gaua, bestetik. Batean nahiz bestean, Oriamendi kaleko espaloia autoz gainezka egoten da urtero. Festetakoak ez du sekretu berezirik: edozein herri festetan denean, hara biltzen baita inguruko jende mordoia. Eguberritakoak, berriz, merezi du soziologia merke pixka bat egitea.

Gabon gauean zer egiten dugun azaldu beharrik ez daukat. Oporretan eskia-tzera edo urruti horietan eguzkitan belztera joaten denik izango da baina, oraindik, gehientsuenok abestiko lege zaharra betetzen dugu, "... aitarene ta amarene ondoan". Nor bere etxekoekin bildu ohi gara denok ere, ahal izatera inork ez baitu gau hori bakarrik pasatu nahi. Normala, beraz, kotxeen joan-etorria izatea. Joan-etorri horretan, baina, zergatik dira Beasainen gehiago etorritakoak joandakoak baino?

Immigrazio-herrizat jo izan da Beasain aspaldidanik. Orain dela mendea baino gehiago ere, herriak idazkari bat hartu eta haren lehendabiziko lana izan omen zen Gaztela Zaharreko udaletxe guztietara idaztea, esanez gure herrira jendea bidali nahi bazuten, hemen bage-nuela denentzako lana eta lotokia. Beste garai batzuk ziren, bistan da, orain ez da halako deirik egiten, baina hainbat gizon-emakume etortzen da gure artera, gaztelarrak baino urrutiagotik baina haien amets berdintsuekin: ez bakarrik lana eta lotokia, baizik eta beraientzako eta ondorengoentzako etorkizun hobe baten esperantza.

Oso hunkigarria geratu zait aurreko pasartea, baina urrundu egin naiz hartutako bidetik. Natorren beraz arrastora. Gabon gauean espaloi gainean aparkatutako kotxeekin ari nintzen. Bistan da kotxe horiek ez direla inongo immigrazio-seinale; izatekotan, kontrakoa, emigrazioarena. Alegia, kanpora bizitzera joandako beasaindar asko dago (Bilbon, Donostian, Madrilén...), halako egunetan gurasoen etxera biltzen dena.

Immigrazio-herri ala emigraziozkoa? Zenbakitan ez nuke jakingo esaten ze talde den ugariagoa, etorkinena ala "joakinena", hitz jokoia onartzen badidazue. Eta etorkizunari begira, gure nahiak baino pisu gehiago izango du betiere munduaren martxak, inguruko lantegien eta ekonomiaren osasunak.

Garai batean Burgos edo Ourense partetik etorritakoak aspaldi egokitu ziren Goierriko bizimolde eta ohituretara. Herrimin latza izango zuten etorri berri-tan, baina gaur inork ez dauka dudarik haxe dela haien lurra, denon artean Euskal Herri bat eraikitzen ez dago erraza baina. Ekuador, Senegal, Ukrainatik etorri zaizkigun gizaseme eta emakumei guztiz arrotza egingo zaie oraindik txoko hau, gure janariak, izaera, bizimodu... Itxaropena izan dezagun, haien seme-alabak eskolara joan eta gabonkantz abestu ahala ikasiko dutela gurasoek ere nor den Olentzero eta, zergatik ez, nor den Andoni Egaña ere.

Gabon-giroko mezu kursi samarra atera zait azkenean, baina ez dago gaizki aldi behin mazapanaren gozoa probatzea. Mikatzak eta garratzak dastatzeko aukerak nahi baino gehiago izango ditugu-eta urtean zehar.

# Goierritarra

**etxean jasotzeko laguntzaile txartela**  
Txartel hau betetzen dutenei urtean 15 euro  
kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

**Bidali txartel hau helbide honetara:**  
Goierritarra, Urbialde plaza, 7 behea, Beasain

**Izen-abizenak:**

.....

**Helbidea:**

.....

**Herria:**.....

**Tfnoa.:**.....

**NAN:**.....

**Kontu zenbakia (20 digitu):**

.....

# Merkataritza, ez laguntza

Aldarrikapen honekin Hegoaldeko herriek 1964an Nazio Batuetan egindako konferentzi batean, mundu mailan justuagoak izango ziren merkataritza harremanak aldarrikatu zituzten. Honela hasten da Bidezko Merkataritza, Elkartasun Merkataritza edo "Comercio Justo" deritzoguna.

## Zer da Bidezko Merkataritza?

Ohiko merkataritzarekiko alternatiba bat da. Azken horren irizpide ekonomiko-en gainetik balore etikoak ditu: alderdi sozial eta ekologikoak. Iparraldearen eta Hegoaldearen artean dauden injustizia egoerekin amaitzeko bide gisa azaltzen zaigu.

## ekoizleentzako irizpideak:

- Soldata duinak eta lan baldintza egokiak.
- Langileen ongizatea hobetu.
- Erabakiak hartu behar direnean langileen partaidetza ziurtatu.
- Beren egitura eta jardueri dagokienez, irekiak izan eta gardentasunez jokatu.
- Merkataritzak emakume, gizon eta haurrengan izan ditzakeen ondorio-erekiko kezka, emakume-



entzako aukera berdintasuna sustatu.

- Giza eskubideak babestu, haur, emakume eta populazio indijenarena bereziki.
- Ingurumenarekiko errespetua. Ingurumenaren babesa eta baliabide naturalen erabilera arrazional eta jasangarria bultzatzen da.

## Zer eros daiteke?

Artikuluen aniztasuna gero eta handiagoa da. Bidezko Merkataritza zabaltzen doan heinean. Produktu guztien oinarriko ezaugarria Kalitatea da. Orokorrean hiru ataletan sailka daitezke: elikadura (kafea, txokolata, tea, azukrea, ezti, rona, mermelada,...). Ehunak (janzteko arropak, tapizak, buruzapiak, etxeko arropak..).

Artisautza ( bitxiak, larrukiak, etxeko artikulua, sukaldeko tresnak, otarrak, jostailuak, futbol baloiak, mahai jokoak,...).

## Eta prezioak zer?

Orokorrean elikagaien prezioa garestiagoa da, ekoizleari diru gehiago ordaintzen zaiolako. Bidezko prezioak ekoizpen gastu guztiak estali behar ditu eta horretaz gain ekoizleei bizimodu duina izateko aukera eman behar zaio. Eta bigarrenik, elikagaien ohiko banaketarekin alderatuz askoz gutxiago saltzen da ondorioz, garraio gastu eta biltegiatzea asko garestitzen da.

## Informazioa non

Informazio honen jatorria SETEM. Garapen, sentsibilizazio eta Bidezko Merkataritzaren inguruko hezkuntzaren bidez nazioarteko elkartasuna sustatzen duen Gobernu Kanpoko Erakundea.

## Informazio gehiagorako:

Caritas, InterOxfan  
[www.setem.org](http://www.setem.org)  
[www.nodo50.org/ocsi](http://www.nodo50.org/ocsi)  
[www.ideas.coop](http://www.ideas.coop)

*Koro Irazustabarrena*

## JAKIN BEHARREKOAK

**New Yorkeko metro geltokia eguzki energiaren hornitua.** Brooklyngo metro geltokia eguzki energiaren baliatuko den lehena izango da. Bere eguzki teilatua 2.730 panel fotovoltaikoez osatuko da eta urteko 250.000 vatio sortuko ditu, horien bidez eraikineko behar energetiko osoa asetzeko espero delarik.

## Culatello d'Oro 10. saria euskal txerriari

([www.slowfood.com](http://www.slowfood.com)). Slow Food Fundazioak sortutako Culatello d'Oro saria, Bidegoiango Pello Urdanpilleta abeltzainak jaso du pasa den uztailan, Italian, euskal txerriaren arraza babestegatik. Euskal Herria txerriak hanka motzekoak dira eta belarri luzeak eta buruan zein atzealdean mantxa beltzak dituzte. Txerri horren haragiaz txorizoa, solomoa, saltxitxoa zein urdaiazpikoa ekoizten ditu Urdanpilletak.


## Uraren kutsadura, europarrak gehien kezkatzen dituen ingurumen arazoa.

Europar Batasuneko 25 estatuetan egindako inkesta batean, uraren kutsadura izan da hiritarrak gehien kezkatzen dituen arazoa. Horrez gain, europarrak informazio gehiago nahi dute, produktu kimikoek osasunean duten eraginaz, transgenikoen erabilpenaz, bioaniztasunaren galeraz eta pestiziden ondorioz sortutako nekazaritza kutsaduraz.

## *Bidezko merkataritza*

*Iparraldearen eta Hegoaldearen artean dauden injustizia egoerekin amaitzeko bide gisa azaltzen zaigu.*

# Gogoan izan 2006an ere Goierrin eskura izango diren zenbait zerbitzu interesgarri



## Poltsa berrerabilgarriak

*Erosketak egitera zoazenean eraman ezazu gurditxoa edo telazko poltsa*

Duela urte gutxi erosketak egitera etxe aldameneko denda edo perira joaten ginenean etxetik poltsa eramaten genuen. Gaur egun ordea, plastikozko poltsak edonon eta erraz ematen dizkigute dohain.

Eskuzabaltasun hau, poltsa hauek egiteko erabiltzen den lehengaiak, petrolioak, duen kostu txikiagatik ematen da. Petrolioak azken hilabeteetan igo egin bada ere, hemen, poltsiko guztiek ordaindu dezaketzen zerbaite da oraindik.

Tamalez, plastikozko poltsak ez dira biodegradagarriak, urteak behar dituzte desagiteko, hondakinak dira. Nonahi ikus ditzakegu noraezean: erreketan, hegaka, itsasoan... eta zabortegetan zer esanik ez.

***Horregatik, berreskuratu ditzagun obitura zaharrak eta murriztu ditzagun hondakinak.***

## Edalontzi berrerabilgarriak

Gure herriko jaietan jarduerak, normalean, leku batean baino gehiagotan egiten dira eta antolaketan hainbat eragilek parte hartzen dute. Jaietan edaria, janaria, esku-lanak saltzen dituen postuak, jaietan parte hartzen duten herriko tabernak, musika-ikuskitzuna, zerbitzu sanitarioak, haurrentzako jokoak, herri bazkariak... ditugu.

Jai hauen antolaketarako errekurtsu naturalak eta energia erabiltzen dira. Kontsumo honek ingurumenean eragin bat sortzen du, batez ere hondakinen sormenak, zaratan, hondakin uretan eta atmosferarako emisioetan eragiten du. Iraunkortasuna aintzat hartzen duen jai handi bat antolatzekeko erronka izateak onura asko ekar ditzake, bai sozialak bai ingurumenekoak!

Edalontzi hauek kasu hauetan erabili daitezke:

- ✓ Edalontzi hauek edozein festa edo ekitaldian erabili daitezke: herri afari, kontzertu, poteoan, ...



## Kotxea konpartitzeko zerbitzua


Goiekik Goierriko 18 udalekin eta eskualdeko hainbat enpresen oneritziarekin batera, autoa konpartitu edo elkarbanatzeko aukera ematen duen zerbitzua jarri du martxan urriaz geroztik.

Zerbitzu hau, tresna informatiko bat da, autoa konpartitu nahi dutenen topaketa errazten duena. Azken batean bilatzaile bat da, zuk egiten dituzun bidaiekin bat datozen ibilbideak egiteko asmoa duten pertsonekin harremanetan jartzen zaituena. Nolabait esateko "autostop" organizatu baten modukoa da.

Aplikazio honi esker kontaktuak bilatu ahal izango dituzu, bai noizbehinkako bidaietarako (oporrak, lana, kongresuak, etab.), bai ohiko desplazamenduetarako (unibertsitatera joateko, lanera, etab.) ere. Zu bezala era ekonomikoago eta ekologikoago batean bidaiak egin nahi dituzten guztiei zuzendutako tresna bat da.

***Tresna honetarako sarbidea prest dago: [www.goierri.org/goieki](http://www.goierri.org/goieki) [www.compartir.org](http://www.compartir.org) webguneetan.***

- ✓ Plastikozko edalontziak ordezkatzeko garaian erabili.
- ✓ Kristalezko edalontziak erabiltzen direnean hauek erabiltzen jarraitu. Edalontzi berrerabilgarrien aurrean aukera hobea da kristalezkoena.



***Gure erronka: murriztea, berriro erabiltzea eta birziklatzea.***



# “Bezeroaren komunikazio beharrak grafikoki era egokian isladatzea da nire lana”

## **Diseinaterako garaian zer hartzen duzu kontuan?**

Bezeroaren komunikazio beharrak grafikoki era egokian isladatzea. Irudiak sortu aurretik bezeroaren azterketa ahalik eta zehatzena egiten dut eta analisi horretatik lortutako informazioak bideratzen nau diseinatzeko garaian.

## **Bezeroak zer eskatzen du?**

Batzuk, euren marka eta irudi korporatiboa sortu edota eguneratu nahi dute. Beste batzuk posterren, kartelen, iragarkien, katalogoen, egutegiaren edo packaging diseinuak, web guneak sortzea, liburuak maketatzea, errotuloak, publizitate plangintzak... nahi dituzte. Badira baita ilustrazioak edota argazkiak eskatzen dituztenak ere. Denetarik da.

## **Bezeroak ideia jakinak izaten ditu ala irekita egoten da?**

Bezero gehienentzat ezezaguna da mundu hau, alor asko jorratzen dira eta aplikazio mugagabeak ditu diseinuak. Ni laguntzen saiatzen naiz eta ahal den neurrian bezeroak bideratzen ditut. Badira beste zenbait ordea diseinuaren irizpide argiagoa dutenak.

## **Erraza izaten al da jendea konbenzitzea?**

Nahiz eta kasu batzuetan egin behar izaten den, ez dut us-te jendea konbenzitzea denik nire lana. Nire diseinuak azalpenekin arrazoitzen ditut eta gehienetan hori nahikoa izaten da.

## **Jendeak gero eta garrantzia handiago ematen al dio diseinuari?**

Bai, gutxinaka ari da barneratzen. Konpetentziak, espezializazioak, merkatuen zabaltzeak eta gainontzekoekiko bereiztuko dituen zerbait behar izanak diseinuaren garrantzia eraldatu du. Diseinua balio gehigarri batean bihurtu da.

## **Bezeroek euskarazko publizitatea kontuan hartzen al dute?**

Batzuk bai eta beste batzuk ez hainbeste. Iragarkia nori zuzendua dagoen da publizitate plangintzetako gakoetako bat. Euskaraz ez dakien jendearengana iritsi nahi bada erdaldunak diren komunikabideetara jo behar da. Kasu horietan, euskararen presentzia ziurtatzen saiatzen naiz eta iragarkiak elebidunak izaten dira.

## **Kolore bat:**

Bat ez, denak. Diseinua zer zen ez nekienean banuen kolore bat, orain ez. Denek dute bere xarma eta erabilpena.

## **Gustura diseinatuko zenukeen zerbait:**

Eskualderako irudigintza plan orokor bat garatuko nuke gustura.

## **Gustuko publizitate bat:**

Sony Bravia telebisten iragarkia gogoko dut, ideia sinplea eta bikaina. On Kixoteren IV. mendeurrenaren inguruan ekoiztu duten telebistarako iragarkia gustuko dut. ETB ere lan polita egiten ari da atal horretan.

## **Urte berriari zer eskatu diozu?**

Lana eta pisuen prezioa jaitea.

## **Amets bat:**

Ez dut aparteko ametsik.

## **Goierriko txoko bat:**

Segura.

## **Bizio bat:**

Kirola oso gogoko dut baina azken aldia ez dut ariketa handirik egiten.

## **Zerk sortzen dizu barregurea?**

Wazemankek, euskal umoregintza beharrezkoa da.

## **Eta negarra?**

Euskararen eta euskal nortasuna duen ororen aurkako erasoek.

*Euskara Euskaltegitik kalera ateratzea helburu*

# Mintzalagun: Euskaldun zaharrak eta berriak tertulian

**H**izkuntza bat ikasteko praktikatzea bezalakorik ez dago eta aukera hori eskaintzen die Mintzalagun programak, euskaraz ikasten ari direnei: astean behin, ordubetez, euskaldun zahar batekin elkartu, eta euskaraz hitz egin. **Goierri hiru herri egin dute bat Donostiako Bagerak sortutako programa honekin: Beasainek, Ordiziak eta Lazkaok.**

Euskara Elkartearen, euskaltegien eta Administrazioaren arteko elkarlanean oinarritutako proiektua da Mintzalaguna. 1993. urtean izan zuen sorrera, Donostian.

Bagerak, Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, Mintzalaguna ekimena jarri zuen abian 1993. urtean. Kezka baten ondorioz sortu zen: euskara ikasleek euskalduntze prozesu osoa bukatu edo urte asko euskaltegian igaro ondoren, ikasitakoa kalean praktikan jartzen ez zutelako ikustea. Bartzuek, inguruan euskaldunik ez zutelako, beste bartzuek, aldiz, lotsa edo konfiantza falta zutelako.

Beraz, Bagerak, euskaltegiaren eta kalearen arteko zubi lana egitea erabaki zuen, euskaldun zaharrak eta berriak harremanetan jarri eta euskaraz hitz egiteko aukera emanez. Hau da,

euskara ikasleak euskaltegian ikasitakoa erabiltzeko bideak jartzea du helburu Mintzalagunek.

Horrekin batera, "euskaldun berriek euskara kalean erabiltzeko aukerak eta eremuak zabaldu nahi dizkiegu. Azken batean, euskaldun berrien edota mintzalagunen sarea zabaltea, euskaldunen sarea zabaltea da. Edota, nahi badu, euskara sendotzea".

## Hiru laguneko taldeak

Euskaltegietan bosgarren urratsetik gorako ikasleei edo gutxienerako elkarrizketa maila duten ikasleei egiten zaie eskaintza. Bestalde,

EGA eta alfabetatze mailetako ikasleei laguntzaile modura aritzeko eskaintza ere egiten zaie.

Hiru laguneko osaturiko taldeak dira: bi euskara ikasle eta laguntzaile bat. Taldekideen adina ere konstante hartzen da; hirukotearen kideek elkarrekin hamar urteko aldea baino txikiagoa izan dezaten saiatzen gara.

Astean behin elkartzen saiatzen dira gutxienez, ordubeteko saioa eginez. Mintzasaioa kalean, kafetegietan edo beraiek aukeratu duten tokian egiten dute modu naturalean. Ikasleek kaleko errealitate-

arekin, kale hizkerarekin, egiten dute topo.

Euskal Herrian, 1.200 gora lagun dabil mintzapraktika egitasmoetan murgilduta.

Euskara ikasleek, Mintzalaguna ekimenean egingandako mintzapraktikari esker euskararen erabileran aurreratu dutela adierazten dute.

## Ekintza osagarriak

Aparteko jarduerak antolatzen dira mintzalagun guztientzat bi helbururekin: bata, mintzapraktika egiteko aukera handiagoa ematea asteroko hitzordu horretatik kanpo; eta bestea, jende gehiago ezagutzeko aukera ematea ikasleen ingurune euskalduna zabalteko.

Ondorengo lerroetan, Beasaingo, Ordiziako eta Lazkaoko Mintzalagun talde banaren iritzia jaso dugu.

**E**uskaltegian ikasitakoa naturaltasunez erabiltzeko bidea jartzea du Mintzalagunek.



**B**easainen Mintzalagun proiektua duela 3 urte jarri zen martxan. Aurtengo ikasurtean, 5 euskara ikasle edo euskaldun berri eta 3 euskaldun zahar dabilta.

Talde horietako bat, Pepi Aranburu euskaldun zaharrak eta Barbara Fernandez eta Pilar Suarez euskaldun berriek osatzen dutena da. Hiruak ere esperientzia errepikatzen ari dira.

Astean ordubetez, kafetxoaren bueltan elkartzen dira. Ane Barandiaran, Udal Euskaltegiko irakasleak zehaztu digunez, “Euskaltegiko klaseetatik gizarterako saltoa ematen laguntzeko eta harreman sarea zabaltzeko helburua du Mintzalagunek. Bakoitzak erabakitzen du non elkartu, mintzamen librea egin edo aurretik gaia jarrita landu eta aritu terminologia zabaltzeko aukera gehiago ematen duela eta...”

### Esperientzia ona

Pilar Suarez tolosarrak duela bi urte parte hartu zuen eta aurten berriz ere saiatzen ari dira. “Gustura ibili nintzen. Oso esperientzia ona izan zen. Ohituraz erdaraz egiten dut normalean eta modu honetara, behartuta nago euskaraz hitz egitera”. Etxean seme-alabek euskaraz badakite ere, “etxean euskaraz hitz egitea oso zaila da niretzat. Nire seme-alabek badakite eus-



**“Euskaltegitik kalerako pausoa ematea asko kostatzen da”**

karaz, baina, batez ere seme zaharrenarekin, ezin dut euskaraz hitz egin. Alaba txikienarekin, saiatzen naiz. Nire lantokian ere, eskualdeko eskola bat da eta ikasleekin harremana euskaraz egin behar dut”.

Pilarrek aitortu duenez, hobekuntza nabaritu du Mintzalagunen parte hartuta.

Barbara Fernandez ere duela bi urte hasi zen Mintzalagunen, Pilarrekin batera. “Lagunak egin gara”, diote.

Barbarak dioenez, “eus-

kaltegitik kalerako pausoa ematea asko kostatzen da. Asteburuetan jateke batean lan egiten dut eta euskaraz erantzuten ere hasi naiz. Entzumena lantzeko ere balio du Mintzalagunak. Oso esperientzia ona da”.

Bi euskara ikasleekin astean behin elkartzen da Pepi Aranburu, euskaldun zaharra. Hirugarren urtea du aurtengoa. “Nire helburua da, arrazoi batengatik edo bestearengatik orain arte euskaraz hitz egitera ausartu ez denari, pauso hori zaila egin zaionari eta boron-

datea daukanari, laguntzea. Nahi baldin badugu kalean eta edozein lekutan jendea euskaraz hitz egiten entzutea, laguntzea ere badagokigu. Beraiek euskaraz dezentzate ondo egiten dute baina pauso hori ematea falta zaie”.

Pepik adierazi digunez, “nik neronek, hauei esker, ere euskara hobea izan dezadan lantzen dut hauei esker. Ni Zaldibiakoa izanik, oso bizkor eta atajutik hitz egiten dut, hauekin hitzak osoagoak esaten ditut, eta polikiago hitz egiten dut”.

**over** Urraki  
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**  
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79  
urraki@over.es www.over.es

**VOLVO** 

**ANZIZAR, S. A.**



**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**  
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

## ORDIZIA



Joxe Mari Aseginolaza  
Maite Gonzalez  
Jone Lekuona  
Jon Urdangarin

## “Orain konfidantza gehiago daukagu”

**O**rdizian 15 Mintzalagun talde biltzen dira astero; 24 euskaldun zahar eta 25 euskaldun berri. Talde horietako bat da Jon Urdangarin eta Jose Mari Aseginolaza euskaldun zaharrek eta Maite Gonzalez eta Jon Lekuona euskaldun berriek osatzen duten laukotea. 2004. urtean osatu zuten taldea eta aurten ere errepikatzen ari dira. Gustura daunderen seinale.

Ostegunetan elkartzeko dira, arratsalde-iluntze partean eta herriko bi tabernetan trago bana hartzen dute. Ostiraletan, poteoa ordubete baino gehixeago luzatzen dutenak ere badira. Asteazkenetako azokan buelta-

txoa eman edo paseatzea nahiago dutenak ere bai.

Maite Gonzalez gustura dago Mintzalagunek eskaintzen duen aukerarekin. “Euskaltegiko ikasketak bukatuta, aukera ona iruditzen zitzaidan jende gehiagorekin euskaraz hitz egitea”.

Maitek berak animatu zuen Jone Lekuona lankidea berarekin taldea osatuz Mintzalagunen parte hartzeko. “Maitek eta biok lantoki berean lan egiten dugu eta ni ere animatu ninduen. Elkarrekin osatu genuen taldea. Euskaltegira joaten nintzen eta ostiraletan izaten genuen mintzapraktika. Baina ostiraletan ezin nuenez joan, ostegunetan egiten dut orain mintzapraktika”.

Biak ere gustura daude egiten ari diren aurrerapenarekin. “Hori beraiek esan behar dute baina nik uste dut baietz, hobetu dugula”, dio Maitek. Jonek gaineratu duenez, “orain konfiantza gehiago daukagu. Hasieran kostatu egiten da, taldeki-deak ezagutu behar dituzu eta. Erdaraz hitz egin behar izango bagenu ere berdina izango litzateke. Hasieran kezka banuen ea zertaz hitz egingo ote genuen-edo, gairik sortuko ote zen... baina bai, beti izaten dira hizketarako gaiak”.

Guztiak ere bat datoz, esperientzia ona dela esatean. Era berean, herritarrak animatu nahi dituzte Mintzalagunen parte hartzera.

Euskaldun zaharrak ere gustura daude euskaldun berriak euskaraz egin dezaten bultzatzen dituen proiektu honetan parte hartuz.

Joxe Mari Aseginolazak, gazte garaian ere izan zuen era honetako esperientziarik eta herrian aukera sortu zenean, ez zuen zalantzarik izan: “ni aspaldian, Valladoliden ikasten ari nintzela, sortu zen halako euskaltegi bat eta horietako eginkizun bat mintzapraktikako talde bat sortzea izan zen. Orduan ere parte hartu nuen eta oso aberatsa izan zen. Hemen proposamena egin zidatenean, egin beharreko zerbait zela irudi zait eta gainera, gustura egiten dut. Talde handiagoak sortzea ere ez litzateke txarra izango, giro bezala”.

Jon Urdangarin euskara irakaslea da eta honek ez zuen zalantzarik izan. “Banezien Lazkaon ere jartzekotan zebiltzala baina ni Ordizian bizi naiz eta herrian gelditzea erabaki nuen, bestela Lazkaon nire ikasleekin arituko nintzen eta hori ere ez nuen nahi. Bide batez, jende gehiago ezagutzen dut eta aitzakia ere badut ateratzeko”.

Ogibidez euskara irakaslea da Jon Urdangarin, baina Mintzalagun koadrilan, hizketa laguna soila da. “Guri laster esan ziguten gu ez ginela irakasleak eta ez genuela zuzendu behar”.

Asteroko ekintzez gain, hilean behin ekintzaren bat ere izaten dute. Atzo bertan esaterako, Julian Bereziartu medikuaren hitzaldia izan zen. Dena den, ekintzarik arrakastatsuen, sagardotegiko afaria izan omen da.

# ARRIETA

## JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,  
bataioak...  
era guztietako  
ospakizunak

☎ 943 88 00 02

**OLABERRIA**

**L**azkaon, irailean jarri zuten abian Mintzalagun proiektua. 23 hirukote, ia 70 lagun biltzen dira astero.

Anun Vara eta Trini Prieto euskaldun berriek eta Patxi Tejados euskaldun zaharrek osatzen dute Mintzalagun talde bat. Gustura daude esperientzia berriarekin, aurrerapausoak nabaritzen baitituzte dagoeneko.

Trini Prieto Maizpiden ari da euskara ikasten. "Teoriarekin nahikoa ondo moldatzen naiz eta ea orain mintzapraktika honekin aurreratzen dudana. Etxean aukera daukat euskaraz hitz egiteko baina kostatzen da egiten zait. Mintzalagunen hasi naizenetik, etxean gero eta gehiago hitz egiten dut".

Anun Varak ere antzeko arazoa izan du. "Duela urte batzuk Maizpiden aritu nintzen barnetegian eta handik ateratakoan edozein lekutan hitz egiten nuen. Baina denborarekin, nekiena galtzen joan naiz eta orain poliki-poliki, berreskuratzen ari naiz. Lotsarik gabe hitz egiten dugu. Etxean ez dut seme-alabekin euskaraz hitz egiten, nahiz eta haiek jakin".

Patxi Tejadosek ez zuen inolako zalantzarik izan euskaldun berriei bere laguntza eskaintzeko. "Euskal kultur munduan 33 urte badaramazkit, Euskal Eskolako batzordean urte askoan nabil, eta horren bueltan antolatuta denez Mintzalaguna,



na, ez dut zalantzarik izan. Irailean jubilatuta egin nintzen eta astean ordubete honetan pasatzea asko ez da", adierazi du Patxi.

Hori bai, bigarren hitzorduan piper egin omen zuen Patxi, perretxikueta joan eta ahaztu egin baitziztaion. Gehiago ez zaito horrelakorik gertatu.

Astean behin, asteazketan, elkartzen dira. Pasiatxo bat eman eta ondoren kafea hartzen dute. "Herriko tabernak ezagutzen ari gara. Berehala pasatzen zaigu ordubetea", diote.

Patxi Tejadosek asko hobetu dutela dio. "Asko askatu dira". Anunek ere, orain gehiago ausartzen dela aitortu du. Bitxikeria bat ere gertatu izan zaio: semeak ama euskaraz hitz egiten entzun zuenean, negarrez hasi zen. Harrituta gelditu zen. Bere ama ez nintzela uste zuen".

Patxi Prietok, Mintzalaguna oso metodo egokia da. "Orain dela 20 bat urte mintzapraktika saioak egiten genituen Gerrikon. 12-15 bat laguneko taldea izaten zen eta zailagoa zen guztiak

hizketan jartzea. Mintzalagun proiektu hau oso metodo ona da. Hitz egitea falta zaien horientzako ez dut uste beste metodo hoberik dagoenik", zehaztu du.

Patxi Prietok ere aberasgarria da Mintzalaguna, euskara garbiago bat egiten saiatzen baita. "Nahigabeko gauza bat da, euskaldun berriekin askotan polikiago eta garbiago hitz egiten dugu. Eta gertatu izan zait berriak esaldi bat oso txukun esatea eta nik jasotzea. Nire euskara ere aberasten ari da".

**ZEGAMA OKINDEGIA**  
*Eskuz egindako ogi naturala*  
 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak  
 ☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

**SALMENTA PUNTUAK:**  
**Beasain:** Zuhazpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

**ZUZENKI**  
 AHOLKULARITZA

**Abokatuak**  
**Enpresen asesoria**  
**eta gestioa**

Tel/Faxa: 943 162 393  
 e.posta: zuzenki@euskalnet.net  
 Hirigoien, 7 LAZKAO

**txekin**  
 www.txekin.net



# Sagardoa: Euskal Herriko edari magikoa

**E**uskal Herriaren historian sagardoa garrantzia handiko edaria izan da urte askoan. Orain ere garai oparoa bizi badu ere, sagardoak aberastasun handia sortu izan du historian zehar. Sagardoaren propietateak indartsu egin izan ditu batez ere euskal marinelak. Normandiara eta Erresuma Batura, Euskal Herritik iritsi zen sagardoa. Euskal Herrira nondik eta noiz iritsi zen, ez dago jakiterik.


# berriz

AMAYA ARZUAGA FRENCH CONNECTION  
 MIRIAN OCARIZ DIESEL  
 ISABEL MARANT FOR ALL MANKIND  
 PAUL & JOE ANTIK BATIK  
 HOSS EARL JEANS  
 MISS SIXTY SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

“Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak”



**GOKINDEGIA  
GARONA**

K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

Sagardoa noiz eta non sortu zen esateko daturik ez dago. Euskal Herriko edaria dela esatea, agian gehitxo esatea da, baina argi dagoena zera da: kristo ondorengo 70. urtean, Euskal Herriaren sagardoa edaten zena datuak badaudela, Erromako Pliniok esanda. Jakoba Errekondok sagarraren eta sagardoaren historia sakon aztertuta du eta berak adierazi digunez, "sagardoaren jatorriaz ez dago daturik, ez dago ezer idatzita. Erromatarrek etor zirenean, garbi esan zuten euskaldunek sagardoa edaten zutela. Euskaldunek vinus malis edaten dutela esaten zuten, hau da, sagarraren ardoa. Pliniok esaten zuen hori. Kristo ondorengo 70. urtean edo. Ordurako edaten zen sagardoa. Suposatzen, bertako sagar ezberdinekin egiten zela. Gero etorri ziren asko hobetutako barietateak, bai kanpotik, eta bai bertan hobetuak ere. Batez ere arabiarrek ekarri zuten. Sagar klase hobeak ekarri zituzten. Badirudi Mesopotamian sagarraren kultura handia zegoela. Erromatarrentzat fruta berezia da, lujozko frutu bat. Beraz, hona etorri eta sagarrarekin sagardoa egiten ikustea, berezia egin zitzaien".

Gaur egun, Erresuma Batua da sagardo produktorerik handienak eta sagardoaren jatorriaz hitz egiten dutenean, Euskal Herriaren jartzen dute sorlekua.



**E**uskal marinelek ez zuten eskorbuto gaitzik harrapatzen, sagardoa edaten zutelako. Sagardoa edari bizia da eta ez du C bitaminarik galtzen.

### Marinelek famatua

Gaur egun ekonomiaren motorra petrolioa eta ura diren bezala, Erromatar garaian, garia, ardoa eta olioak ziren aberastasun iturri. "Hiru produktu horiek produzitzen ziren lekuak ziren aberatsak. Orduan, denek hori produzitu nahi dute. Hemen ere, oso lur txarrak izanagatik, garia ereiten zen. Denek ardoa produzitu nahi izan dute historian zehar. Beraz, Frantzian, Ingalaterran... denean ardoa egin nahi zuten".

Baina, ingelesak eta frantsesak sagardoa egin nahian hasten dira, oso edari osasuntsua dela ikusten dutelako. Batez ere, euskal marinelek daukate horren errua. "Langile onak izateaz gain, itsasoan indarrean iraun egiten zuten euskaldunek, sagardoari esker. Ingelesentzat oso arraroa zen hori. Euskaldunek ez zuten eskorbuto gaixotasunik harrapatzen. Eskorbutoa C bitamina falta da eta sagardoak C bitamina dauka. Espainolek eta frantsesek limoia hartzeko ohitura zeukaten. Konturatu ziren, eskorbutoaren aurka, limoiak eraginik bazuela. Baina hura ere bukatu egiten zitzaien. Eta limoia jan ere egin behar da. Beraz, destilatua edateko ohitura zeukaten, rona, brandia edo koñaka. Ardorik ez zuten eramaten. Baina destilatzekeo prozesuan bitamina galdu egiten da".

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

**ibai ondo**  
barne diseinua  
dekorazioa

Garai berrietarako  
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa  
Tel.: 943 16 40 40  
BEASAIN


**IÑAKI ARIN**  
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

**B E A S A I N**



## Mito okerrak

Sagardoaren krisi garaikoa da gaur egun ezagutzen dugun txotx garaia. Jakoba Errekondok adierazi digunez, beraz, hainbat mito oker badaude gizarteratuak. “Zenbait mito, mitoak dira. Errealak oso momentu puntual batean izan dira, 50-70.eko hamarkadan, eta horiek eredu bihurtu dira. Eta tristeena da, sagardogileek hori bultzatu dutela”.

● **Zutik jateko ohitura.** “Niretzat, sagardotegi batean zutik jatea insulto bat da. Sagardogileek, identitate seinala bezala hartu dute zutik jatea, baina hori ez da horrela. Txirritaren argazkietan, sagardotegietan eserita ikusten dira, normala den bezala. Gertatzen dena da, sagardotegia, herri, hirigune eta baserri inguruetakoa erdigune izatetik, sagardotegia oso marginala den leku bat izatera pasatzen dela. Orduan, sagardoa probatzerako korrika eta presaka joaten zen, etetik zerbait prestatuta eraman eta alde egiten zuten. Hori da, sagardoa pobreena izan den garaiko ezaugarria, eta orain hori mantendu behar al du?”.

● **Menua.** Gaur egungo sagardotegiko menuari buruz ere badu kontrakorik Errekondok. “Esango didazu Txirritak zenbat txuleta jango zituen. Askoz gehiago jango zuten oilaskoa edo txitxarroa edo konejua edo amuarra. Baina elkarteetako jendeak etxetik prestatuta baikailoa eramango zuten, eta orain badirudi hori dela sagardotegiko menua”.

● **Baserriarekin gauza bera.** Baserriaren kasuan ere antzeko zerbait gertatu dela esan digu. “Guk ezagutu dugun baserriak pobreena, garai hartakoa, da guretzat erdua. Inoiz ez da esnea produzitetik bizi. Pentsa, baserria, produkzio industrial baterako sortzen da. Baserriarrak, Gipuzkoan eta Bizkaian aurrera egin badu, idi pareta eduki eta beste norbaitentzat lan egiten zuelako izan da. Egur ikatza jaisten, burdina edo sagardoa eramaten... Guk daukagun baserriaren erdua, justu, historikoki momentu kaskarrenekoa da”.

Beraz, eskorbutoarean aurkako edari magikoa zen sagardoa. “Eskorbutoaren aurkako edaria da sagardoa. Nahiz eta sagardoa mindua egon, C bitamina mantendu egiten zuen. Edari bizia baita sagardoa”.

### Edari osasuntsua

Itsasoan denbora luzea egiten zuten marinelek eta sagardoak mantentzeko gainera, arazorik ez du izaten. “Upelaren barruan, 10 urtera arte egon daiteke. Sagardo desberdina egiten joaten da baina txarrenera ere, edateko modukoa egoten da. Mindutakoan, urarekin nahasten zuten sagardoa”, gaineratu du Errekondok.

Beraz, sagardoaren ospea Euskal Herritik mundura zabaldu zen. Normandia-ra, bizkaitar batek eraman zituen sagarrak eta sagardoa egiteko teknologia, XVII. mende inguruan, “Bizkaiko Jauna deitzen zioten. Aberastasun handia ekarri zion sagardoak Normandiari”. Normandiatik iritsi zen Ingalaterrara.

### Sagardo askoren beharra

XVI. mendean gizarte indartsua zegoen Gipuzkoan. Mundu mailan Gipuzkoa oso garrantzitsua zen. Untziola oso garrantzitsuak zeuden. Merkataritza garrantzitsuena, Sevillarekin batera, Gipuzkoan zegoen. Portuak oso garrantzitsuak ziren Bordelekin lotuta baitzeuden, untziola ugari zegoen, merkataritza indar-

tsua zegoen, itsas-garraioa garrantzitsua zegoen... Jakoba Errekondok adierazi digunez, itsasgizonen kontratuetan, egunean 2 litro sagardo izango zituztela zehazten zen. “Pentsa zenbaterainoko produkzioa behar zen. 6 hilabeterako joaten baziren, pentsa zenbat litro sagardo eraman behar ziren”.

Itsasontzien bueltan jakina, lanbide asko sortu ziren. “Itsasora jende asko joaten zen baina pentsa lurrean zenbat jende mugitzen zen. Itsasontziak egiteko basoan egurra botatzen ari zirenak, garraioan ari zirenak, ontziolatan lanean ari zirenak, ontzientzat burdina egiten ari zirenak, ikazkinak,... Administrazioan ere bai. Seguran adibidez, 100 iskribano egonda daude. Hiribilduen bueltan, perratokiak, ostatuak... Horiei denei edaten eman behar zaie”.

### Ura, txarra

Garai hartan gainera, urik ez zen edaten. “Haien iritzian, ura ez zen edatekoa. Ura txarra da, izurriteak ekartzen ditu. Gaur egun ere, baserriar askok urik ez dute edaten oraindik ere, kulturalki, ura edatea txartzat hartu izan delako. Beraz, sagardoa edaten zuten”, gaineratu du.

Sagardo asko behar zen garaia zen eta sagardo enpresak sortu ziren. Tartean, Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserria.

**S**agardo eskari handiari erantzuteko sagardo enpresak sortu ziren.

**PSIKOLOGI KLINIKOA**

**ARGI** Jose Ramon Pato Prieto  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS: 420/01

**AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041**  
**JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN**

**Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak**

**ARANDIA**  
Garajea

**LADA**  
Ssang Yong

**AUTOEN KONPONKETA**

**N-1, z/g**  
Iurre Auzoa

**OLABERRIA**

**☎ 943 88 09 47**

# Duela 500 urteko sagardotegi industrialak

Baztandik Durangora bitartean, mila sagardotegi-baserri eraiki ziren XVI. mendean. Goierrin 40 bat egongo ziren eta adibiderik garbiena, eta gaur egunera arte iraun duena, Ezkio-Itsasoko Igartubeiti dugu. "Sagardoa etxeko produktua izan da. Erromatarrekin merkataritza sortzen denean, salmenta zein garrantzitsua den konturatzen direnean, gehixeago produzitu eta inguruko hiribilduetan saltzen hasten dira. Beraz, salto ikaragarria da Igartubeiti. Garai horretan, badirudi, batez ere hiribilduetan erosteko ahalmen handia dagoela", dio Jakoba Errekondok.

## Leku estrategikoa

Estrategikoki eta klimatologikoki oso leku onean eraiki zuten Igartubeiti dolare-baserria. "Batetik, sagasti asko egongo zen, baina bestetik, Igartubeiti dagoen bezalako leku estrategikoa asko ez da egongo. Egun guztian eguzkiak jotzen du; gain batean dago baina itsasaldetik gain babestua da; estrategikoki bailara baten gainean dago, pasadizo bat dominatzen du", zehaztu du Errekondok.

## Munduan bakarra

Dolarea da Igartubeiti baserriaren oinarria. Martxan dagoen dolare gotiko bakarra da Ezkio-Itsasokoa. Jakobak emandako datuen arabera, "teknologia oso zaharra da, gutxienez 4.000-5.000 urte aipatzen dira. Mesopotamian erabiltzen zen. Hona nondik iritsi zen? Hori ez dakigu, baina aparatua bera, Europan eta Asian erabili izan da. Zanpatu behar den edozein produkzioan erabili zen. Dena den, neurri horretako dolarerik ez dago. Lasai esan liteke, Ezkio-Itsasoko Igartubeiti dolare-baserria dela munduan bakarra. Martxan dagoen bakarra ere bada".



## Ezkio-Itsasoko Igartubeiti interpretazio zentroa

Igartubeiti baserriaren azpi aldean eraikitzen ari diren eraikinean, baserriaren interpretazio zentroa jartzekotan dira. Sagarrak eta sagardoak protagonismo berezia izango du, baserrien oinarrian, dolareak baitaude. Museoa, denda, taberna... joango dira. Gipuzkoako Foru Aldunditik jakitera eman digutenez, lanak udaberri aldera hasi eta 2006. urte amaierarako bukatuta egotea espero da.

Kanpoaldea ere txukunduko dute, Jakoba Errekondoren ardurapean. Sagarrondoak landatuko dituzte. Barietate zaharrak bilatzen ari dira, Frantzia aldean.

## Familiako enpresak

Familiako negozioak izaten ziren sagardotegiak. Kanpoko langileak kontratatuko zituzten lan asko izaten baitzen. "Abuztuaren bukaeratik abenduaren erdira, sagarra egoten zen eta tope produzitzen jartzen badugu, milaka eta milaka litro egingo dira. Makinak bakarrik martxan jartzeko jende asko behar da. Makina elikatzeke, sagarra bildu egin behar da, sagarra ekarri egin behar da, sagasti asko

eduki behar dira, sagardoa Pasaia, Donostiara, Tolosara, Ordiziara... eraman behar da. Itzainak, gurdiaekin lanean aritzen direnak, upelak egingen...".

## Baserriaren sorrera

Sagardotegi industrialen sorrerarekin lotu behar da baserriaren jatorria ere. Dolarea jartzeko eraiki ziren etxeetan, bizilekuak egokitu baitzituzten. Ordu-ra arte, txabolak eta bordak zeuden.

**iñAUSTI** N-1 errepidea  
lurre auzoa  
OLABERRIA  
KARROZERIA  
© 943 88 43 01

**Joxi**  
Iturgintza - Berogintza - Gasa  
Tel. - faxa:  
943 88 43 87  
676 178 488  
Ibarguren  
baserria  
ZALDIBIA

# Txotx garaia

Txotxetik edateko ohitura oso zaharra da. Sagardoserosleek sortutako ohitura sortua da. "Sagardoa upelean dagonean bere osatze-prozesua gauzatu ari da. Hau dela eta, gero uda-udazken aldean bakoitzaren gustura egokitutako sagardoa zein izango den aukeratzeko edaten da txotxetik. Beraz, txotx-garaiko ohitura, sagardo-eroslearen ohitura zaharra da. Txotxetik ezin zaio asko tira upel bati, osatzen ari den sagardoa zapuztu baitaiteke. Sagardogileak kontu handiz aukeratzen du zein upel eta zenbat aldiz ireki".

Gaur egungo txotx garaia dena den, beste kutsu bat hartu du. "Gaur egun, ordea, txotx-garaia sagardoa aukeratzeko baino sagardotegiek eskaintzen duten giroaz gozatu eta sasoi-

ko sagardo gaztea edateko ohitura bihurtu da".

## Benetako sagardoa, botilakoa

Sagardotegien puntu gorena txotx garaia izaten bada ere, Jakoba Errekondok garbi dauka benetako sagardoa, botilakoa dela. "Txotx garaian upelean egoten dena ez da sagardoa. Ez dakit nola deitu beharko litzaiokeen, baina sagardoa ez da, egin gabe dago eta Sagardoa, botilan egiten da".

## Sagardo ezberdina

Garaiak aldatu diren bezala, sagardoa bera ere aldatu da, bai egiteko moduan, bai zukuan. "Teknika erabat ezberdina erabiltzen zen. Oxidatzen uzten zen. Beste zapore bat zeukan, usain gehiago, kolore gehiago, beste loditasun bat. Gaur dena, inoxidablearekin egiten da, sagarretik upelera bitarteko prozesua ahalik eta azkarren egiten da. Garai hartan, prozesu hori oso luzea zen eta gainera, luzatzen uzten zen. Hori zela onena uste zen".




## Gainbehera

Urrezko garaia bizi ondoren, gainbehera etorri zen. XX. mendean hasi eta duela 25 bat urtera arte iraun zuen gainbehera horrek. Jakoba Errekondok eman digu gainbeheraren arrazoiak: "Gizartea bera dago gainbe-

heran. Merkataritzak, kaia, untzigintza, hiribilduetako aduanek indarra galdu egiten dute, mundu mailan Espainiak inperio izena galtzen duelako. Jendea hiribilduetatik baserrietara bizitzera joaten da. Gizarte erabat urbano izatetik, ia era-

bat baserritarra izatera pasatzen da. Orduan, ez dago erosteko gaitasunik, geroz eta pobreagoak dira... Garaiklabea izan da XX. mendea. Bi karlistaden ondoren, gerra zibilak errematea ematen du. Pobrezia handia dago eta erosi ahal duenak,

nahiago du sagardoa baino, ardoa erostea. Sagarrondo asko atera ziren ipurditik. pixkanaka ardoa sartzen hasten da. Izugarritzko fama du, oso jende gutxi edateko aukera, garestia da... gero eta famatuagoa da".



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



### ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak

## SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako  
gida-baimenak

Aita Urdaneta  
ORDIZIA  
☎ 943 88 72 76



# SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



## BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu  
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik  
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

**IKAZTEGIETA**

## OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena ezik  
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-  
kita (astean zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

**ZERAIN**

## a u l i a



TOLARE  
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

**LEGORRETA**

## Olagi

Sagardotegia  
Jatetxea

Urte guztian  
zabalik

Eguneroko menua  
Karta  
Sagardotegiko  
meua



☎ 943 88 77 26

**ALTZAGA**

## AMEBI

ASTELEHEN  
GAUETAN  
ITXITA



Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

## ZALBIDE

TOLARE  
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera  
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

**ABALTZISKETA**

## TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

**ORDIZIA**

## URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA

Egunero  
zabalik



Zatoz lagunarteko  
giroaz goatzera!

☎ 943 18 01 19

**ATAUN**



## ETXE-ZYRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

☎ 943 88 20 49

**OLABERRIA**

Esperientziaren Eskolako ikasle ohien elkarte

# Gueske



**G**oierriko Esperientziaren Eskolako ikasle ohien elkarte da Gueske. Oraindik ere gizartean, makina bat lan egin dezaketen adineko pertsonak ditu

oinarrian elkarteak. Gizartea beraien begietatik aztertu nahi dute eta irtenbideak emateko garaian beraien iritzia ere kontuan hartua izan dadin nahi dute.



**Iñauti**  
Hertz Klinika  
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO  
602 Zoki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK  
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN  
☎ 943 88 46 28



**ondoeta**

ISO 9001:2008  
**ENQi**  
UKAS

**ondoeta**

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO  
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN  
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: [ondoeta@ondoeta.com](mailto:ondoeta@ondoeta.com) [www.ondoeta.com](http://www.ondoeta.com)

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

Esperientziaren Eskolak bizia eta indarra eman diotela diote, autoestimua indartuz; azken batean, gizartean oraindik ere lan egiteko eta eragiteko gai direla ikusi dute.

Esperientziaren Eskola-ko lehenengo ikasturtea bukatu eta lanean jarraitzeko gogoia zeukatenez, elkartu eta Gueske elkarte sortu zuten. Txaro Fernandez Gueskeko lehendakariak adierazi duenez, Gueskeren helburua zera da: "Esperientziaren Eskolan ikasi genuena eta gure indarrak aprobetxatzea hainbat eta hainbat gauza egiteko".

Hainbat proiektu idatziaz dituzte. Dena den, Gueskeren egitekorik garrantzitsuena, Esperientziaren Eskolak bizirik iraunaraztea da, "hori baita gure bizitza ematen diguna".



*Jose Garaialde, Laida Plazaola eta Txaro Fernandez.*

### Esperientziaren Eskolaren esperientzia

Txaro Fernandezek Esperientziaren Eskolaren garrantzia azpimarratu du. "Niretzako Esperientziaren Eskola, adinekoentzako antolatuta den gauzarik onenetarikoa da. Onena ez dut esaten, denak ez ditudalako ezagutzen. Bakoitzak baruan daukagun onena kanpora ateratzeko balio izan du. Ilusioa, autoestima... kanpora atera arazi dizkigute. Berriz ere bizitzan zerbait egiteko moduan jarri gaituzte. Gainera, oraindik

ere lan garrantzitsuak egiteko gaitasuna badugula ikusten dugu".

Txaro Fernandezek gehitu duen bezala, "gauza bat oso ona daukagu gure bizitza eta gure esperientzia. Esperientziaren Eskolan lantzen genituen gaiak ere gure bizitzan landu izan ditugun gaiak izan dira asko".

Asko ikasteaz gain, erakutsi ere egin omen dute. "Oso polita izan da. Harreman sakonak izan ditugu irakasleekin eta beraiek

esaten dutenagatik, gure esperientziarekin asko ikasi dute".

Esperientziaren Eskolan bizi izandako esperientziaren ondotik sortu zen Gueske. "Benetako lagu-

nak egin gara eta ez genuen nahi ikasturtea bukatu eta dena hor bukatzea. Gogoia bageneukanez eta zerbaitetarako balio genuela ikusten genuenez, jarraitzea pentsatu genuen. Hor-

**G**ueskeren helburua:  
**Esperientziaren Eskolan ikasitakoarekin**  
**eta gure indarrak aprobetxatuz**  
**hainbat proiektu gauzatzea.**

**GUKlan**  
 BAINUKO OSAGAIK  
 BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933  
 Nafarroa Etorbidea, 27  
 BEASAIN

Tailerra:  
 Okorro, 6  
 ORDIZIA

 **mazda** ☎ 943 889 296  
 Faxa: 943 887 952  
**Bikar, S. A.** N-1 errep. 419 Kma  
 BEASAIN



tik sortu zen Gueske elkarte”.

68 bazkidek osatzen dute Gueske elkarte. Urtean 30 euroko kuota ordaintzen dute.

### Proiektuak

Hainbat proiektu dituzte eskuartearen Guesken: ibilbideen liburuxka (dagoeneko kalean dagoena); Ataungo baserrietako adinekoen egoera jakiteko ikerketa; alargunen pentsioa, 610 eurora igotzeko eskaera (Goierriko udalek onartua eta Diputazioaren esku dago gaia); komunikazio proiektua (web orria); ‘Formazioa eta kultura’ seminarioa; ingurumen proiektua; eta belaunaldi arteko topaketa.

### Ataungo azterketa

Ataunen adibidez, ikerketa bat egin dute: baserrietan bizi diren 70 urtetik gorako ataundarren egoera jakin nahi izan dute. Bakarrrik bizi ziren, gaixotasunik zeukaten, familiaren laguntzarik bazuten, etxea baldintza onetan zuten...

Gueskek proposatuta, Ataungo Udalaren eta Ataungo Jubilatuen Elkartearen oniritziarekin eta laguntzarekin egin da. Elkartean ataundar bat zegoela eta, errezagoa egin zitzaizen baserrietan sartzea.

Ia 200 baserrietan galdeketa egin dituzte. Ikerketa egina dago eta orain ondorioak ateratzen ari dira. Ondorioak, profesionalek eta Gueskekoek beraiek aterako dituzte. Dena den, larritasun handieneko arazoei irtenbidea eman zaie dagoeneko.

Laida Plazaola, Goiekiko



*Esperientziaren Eskolakoak eta Gueskekoak Donostiako Zientzia museoan.*

Esperientziaren Eskolako arduradunak gaineratu digunez, “ondorio batzuk teknikoak izango dira; Amagoia Muruamendiaraz gerontologia mailako teknikariak emango ditu emaitza teknikoak. Bestetik, azterketa egin duten taldekideek euren ondorioak ere aterako dituzte”.

Ikerketaren ondorio orokor bat aurreratzearen, arazorik handiena, bakardadea dela esan digute. “Arazorik handiena, bakardadea da. Hizketa egiteko behar handia dago. Batzuk irtenbide teknikoak beharko dituzte eta beste batzuk bolutariotzaren bidez aurre

egin daitezkeenak izango dira. Baserriarrei gainera, asko kostatzen zaie eskaintzea. Beraz, egoera ezagutu eta laguntza eskaintzea nahi dugu.”, zehaztu du.

Txaro Ferdanezen arabera, Ataungo ikerketa, “hasiera bat da, 50 urtetik gorako pertsonak hasi gara horrelako gauzak egiten eta ekarpenak egiten. Gueskeren proiektuak, adinekoen begietatik ikusitakoak izatea nahi ditugu”.

Laida Plazaolak gaineratu duenez, “taldekideek asko ikasi dute eta beste mundu bat ezagutzeko aukera izan dute”.

### Belaunaldien arteko elkar ulertzea

Beste proiektu bat, belaunaldien arteko harremana edo lotura sortzea da. Txaro Fernandezek zehaztu duenez, “guk gazteak hobeto ulertzea eta gazteek gu ere gehiago ulertzea nahi dugu. Elkartzea. Orain distantzia handia dago, zaharrok molestatu egiten dugu, ez dugu ezertarako balio... Aitona-amonak laguntzeko moduan badaude oso ondo etortzen dira baina horrela ez badaude, estorbo egiten dute. Beraz, saiatu behar dugu, ahalik eta trabarik gutxiena egiten egotea”.


Gueskeko lehendakariak badaki, gazteen eta helduen munduak “mundu ezberdinak gara baina elkar ulertzea garrantzitsua da. Mundu honetan zerbait aldatzeko gai gara oraindik eta horretarako gazteon laguntza ere behar da”.

**“Guk gazteak hobeto ulertzea eta gazteek gu ere gehiago ulertzea nahi dugu. Elkartzea”**



**kutxa**

gizarte ekintza



## 'Ordiziatik 9 ibilbide'

Gueskeren proiektu bat bukatuta eta kalean dugu dagoeneko. 'Goierri. Ordiziatik 9 ibilbide' liburuxka. Adineko pertsonen ikuspegitik, adinekoentzako 9 ibilbide biltzen dira bertan. Guztiak ere, Ordiziatik abiatuta egitekoak.

Jose Garaialdek koordinatu du liburuxka. "Gure naturaz gozatu eta ibiltzeko gonbidapena da liburua. Gure ingurunean, herriguneetatik kanpo pasiatzeko, abentura piska bat eginez eta irudimenari eta askatasunari lekua utziz, bideak eta paisajeak ezagutzeko, isiltasuna estimatzeko", dio Garaialdek.

### Ibilbideak:

1. Ordiziari itzulia	1,45h/2h	7,8 km
2. Ordizia-Oiangu-Ordizia	1,15h/1,30h	4,8 km
3. Ordizia-Beasain-Erauskin auzoa-Ordizia.	1,30h/2h	6 km
4. Ordizia-Lazkaoemendi-Ordizia	2h/2,15h	9 km
5. Ordizia-Zaldibia-Lazkaoetxe-Ordizia	3,30h/3,15h	14,8 km
6. Ordizia-Itsasondo-Urki-Ordizia	3h/3,15h	11 km
7. Ordizia-Itsasondo-Arama-Ordizia	1,30h/1,45h	6,2 km
8. Ordizia-Arama-Altzaga-Abalis-Ordizia	2,15h/2,30	9 km
9. Ordizia-Amundarain-Zaldibia-Ordizia	3h	12 km

Ibilbideak planoz, testuz eta argazkiz hornituak daude. Mapa panoramiakoa era grafikoan ageri dira, base-riak, lantokiak, iturriak, herriak, parkeak, ermitak... adierazten dira. Testuak, zenbakiak adierazten dira.

### Kultura eta historia

Liburuxkaren amaieran, eranskin bat ere ikus daiteke. "Testuak idazteko garaian, ibilbidean zehar genituen hainbat elementu ezin genituen sartu. Beraz, eranskina argitaratzea erabaki genuen, datu historiko eta kulturalak biltzen baitira".

1,50 eurotan dago salgai liburua, Goierriko liburudenda eta kioskoetan. "Dohainik ere jarri zitekeen, baina ez da komenigarria horrelako gauzak dohainik ematea, jendeak behar dituenak baino gehiago hartu eta gero zaborretara botatzen dituelako. Prezio sinboliko batekin, jendeak gauzak gehiago mimatzen ditu", gaineratu du Garaialdek.

Ordiziako Udalaren, Euskadiko Kutzaren eta Goiekiren dirulaguntzaz kaleratu da liburuxka.


Liburuxka kalean dago baina lana oraindik ez da erabat bukatu, Txaro Fernandez, Gueskeko lehendakariak gaineratu duenez. "Ibilbideak egiterakoan konturatu gara zenbait lekutan espaloiak falta direla, arriskuren bat badagoela... Udalarekin egon behar dugu ea konpontzen diren dauden akatsak".

### Gueskeren ideia

Osasuna mantentzeko errezetarik onena ibiltzea dela jakinda, Guesken sortu zen liburuxka kaleratzeko ideia,

Joxe Garaialdek gogoratu duen bezala. "Esperientziaren Eskolan gai ezberdinak lantzen dira baina oinarrian bi elementu garrantzitsu daude: medikuntzarekin eta psikologiarekin lotutako gaiak. Arlo fisikoa eta psikikoa garatzen laguntzen da. Pertsonaren gaitasunak lantzen saiatzen dira, zahartzarora ahalik eta egoerarik onenean iristekoa. Akzio sozial bat egitea izaten da azkeneko proiektua. Manteimendu aktiboaren barruan, ibilbideen gida egitea proposatu genuen".

Jose Garaialdek gaineratu duenez, "bazegoen beste libururen bat, 'Goierri mendiz mendi'. Goierri bere osotasunean hartzen du. Baina guk nahi genuerako ez zen hain erabilgarria. Mendi gailurretarako ibilbideak ez dira dagoeneko guretzat eginak. Pertsona helduentzako ibilbideak nahi genituen, eta gune zehatz batean, Ordizian. Ez genuen nahi beste herrietara sartzetik, bakoitzak berea egiteko aukera baitauka. Bideak ere ez genituen seinalizatu nahi, nahikoa marka badaude eta dagoeneko".



**TOLDOS OLANAK**  
**AGUSTIN S.L.**  
Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxa: 943 886 558  
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42  
LAZKAO

toldosagustin.com  
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

San Inazio, 14 BEASAIN  
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA  
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA  
☎ 943 650 239

**Lirain**

Lurrindegia eta opari gaiak

# Txorimalo gautxoria

Mikel Zurutuza Rodriguez, Jakintza Ikastola (DBH.2)  
Eguberrietako idazlan lehiaketako 1. saria

Istorio hau Euskal Herriko ukulu batean hasten da. Beleak zirela eta ez zirela, Joxe Ramon Argoitibarrenak txorimalo bat egitea erabaki zuen.

Goizeko zazpiak ziren, Argoitibarrena baserrian, eta gau osoa lanean pasa ondoren, ausartena ere beldurtuko zuen txorimaloa egin zuen Joxek, baratzean ipini eta airean ihes egin zuten beleek.

Joxe Ramon pozik, behiak jeztera joan zen. Hau joan zenean bele temati bat, txorimaloaren besoan ezarri zen.

- Ka...ka...kaixo! Esan zion beleak.

- Kaixo! Erantzun txorimaloak.

- Zer...zergatik jarri zaitu hemen nagusiak?

- Nire lana, zuek baratzetik uxatzea da!

Beraz belea bere lagunengana joan eta txorimaloak esandakoa kontatu zien. Hau entzutean beleek beraien ospea gordetzeko, hau da, gaizto eta bihotz txarrekoak zirela ez ahazteko, baratzerara sartu eta arto gozoa jaten hasi ziren. Txorimaloak ezin zuen egoera kontrolatu eta zerbait egin behar zuenez, erratza hartu eta jaurti egin zien. Bat, bi, hiru... horrela igarotzen ziren egunak, beleak gora beleak beheara, hau bai, ez zen belerik sartzen Argoitibarrenen baratzean.

Gauean, benetan aspertzzen zen gure txorimaloa. Eguna ondo igarotzen zuen, lan ederra zuen eta beleak baratzetik kanpora mantentzen zituen.

Gau batean hontz batekin egon zen hizketan eta honek esan zion gauean ez aspertzeko onena ehizan aritzea zela. Aritu zen gau euritsu batean gure laguna ehizan eta harrapatu zuen



bakarra sekulako katarroa izan zen.

Eguna ongi igari zen txorimaloarentzat, egun guztia mukia zeriola ibili bzen ere. Gaua azkar iritsi zen ordea eta aspertzeko ordua iritsi zela esan nahi zuen horrek.

Lotara joan baino lehen zapoak esan zion "ikas ezazu igerian!" Orduan Lastoburu urmaelera gerturatu zen. Salto egin eta...

Hurrengo goizean busti-busti eginda azaldu zen urmaelaren ondoan.

Joxe Ramonek aurkitu zuen goizean goiz blai eginda. Lasto lehorra jarri eta baratzean sartu zuen.

Egunak azkar eta gauak poliki igarotzen zitzaizkion Lastobururi.

Gau batean hauxe entzun zion txorimaloak Joxeri:

- Hi haiz hi gautxori galanta! Esan zion alabari.

- Zer esan nahi zuen gautxori hitzak? Pentsatu zuen Lastoburuk ez baitzuen ezagutzen hitz horren esanahia.

Alaba gau osoan lasto artean lo egitera zigortuta zegoenez, ez zen zaila izan berarekin hitz egitea. Hone-la esan zion txorimaloak:

- Zer esan nahi du gautxori hitzak?

- Zer?

Goiztiri AEK euskaltegiak Euskara Aholku Batzordearen babesean Eguberrietako postal eta idazlan lehiaketara antolatu du. Ordiziako Jakintza Ikastola eta Urdaneta-Oianguren ikastetxe-tako ikasleak izan dira protagonista.

## Postal lehiaketa:

**Jakintza Ikastola:** 1. saria: Yassin Reghif. 2. saria: Ane Nadal. 3. saria: Maialen Etxabe.

- Ea zer esan nahi duen gautxori hitzak.

- Aaahhhh! Nire aitak gaue-ro lagunekin ateratzen naitzela adierazteko erabiltzen du.

- Eta... hori dibertigarria al da?

- Noski, oso dibertigarria.

Lastoburu pentsatzen hasi zen, izan ere berak zituena lagun bakarrak ondoko baratzean Belarburu eta bizilagunaren Pinuburu ziren. Hauekin hitz egin eta sekulako parranda prestatzen saiatu zen.

Hurrengo gaua beste bi txorimaloekin igaro zuen ondoko belazean. Seko aspertu ziren. Lastoburu triste baratzerara bueltatu eta Joxeren alaba Eneritzekin hizketan hasi zen:

- Zuk gautxoria izatea dibertigarria zela esan zenuen?

- Dibertigarria da eta.

- Nik gau osoa pasa dut ondoko belazean nire lagunekin eta seko aspertu naiz.

- Noski, nola ez zinen ba aspertuko! Belazean ez dago ezer egiteko.

- Orduan nora joango gara?

- Ba... diskotekara, herrian bertan dago bat, azkar nabarmenduko duzu bere kolore biziengatik.

Hurrengo gauean bertan joan ziren gure lagunak diskotekara. Joan bai, sartu ez,

## Urdaneta-Oianguren

**Ikastetxea:** 1. saria: Mikel Zabalegi. 2. saria: Irati Garmendia. 3. saria: Ainhoa Gonzalez.

## Idazlan lehiaketa:

**1. saria:** Mikel Zurutuza (Jakintza). **2. saria:** Janire López (Oianguren) **3. saria:** Beñat Pecharroman (Jakintza).

Horri honetan duzue argazkiko Mikel Zurutuza irabazlearen idazlana.

ordea.

Diskotekara iristean hiru txorimaloak sartzeko ilaran jarri ziren. Beraien txanda iristean "gorila" edo "atezain" hitzaz ezagutzen denak zeharo beldurtuta osti-koka bidali zituen.

Lasto, belar eta pinu arrasto handia geratu zen Argoitibarrenen baserrirako bidean.

Hurrengo gauean, berriz ere txorimaloa Eneritzi gerturatu eta gertatutakoa kontatu zion. Hau entzun ondoren neskak azken aukera bat eman zion:

- Joan zaitez tabernara bertan ondo pasako duzu eta.

Txorimaloak esana egin zuen eta gau osoa igarto zuen tabernaz taberna. Oso ondo pasa zuen gainera.

Baina beti ondo pasatu ondoren zerbait txarra gertatzen da. Kasu honetan sekulako mozkorra harrapatu zuen. Baserrira bidean galdu eta eta inguruko mendiren batean lo hartu zuen.

Hurrengo goizean esnatu zenean izugarriko buruko-mina zuen. Argoitibarrenatarren baserrira iristean bere lana betetzen, beste txorimalo bat zegoela ohartu zen eta beraz, oso penatuta, bertatik alde egitea erabaki zuen.

Inork ez du gehiago jakin gure lagunaz.



## Beasain

### Goieniz zineklubaren XXIII. zikloa hasi da

Atzo, urtarrilak 12, hasi zen Goieniz zineklubaren edizio berria. Apirilaren 6ra bitartean, 8 film eskainiko dira Beasaingo Usurbe Antzokian, gaueko 9etan. Tartean, ikusleek aukeratutako film kuttuna eskainiko da: 'Paradise now'. Sarrerak 3,5 euro balioko ditu eta ziklo osorako abonoak, 15 euro. Jarraian duzue karteldegia:

**Urtarrilak 26:** *Code 46*, Michael Winterbotton. Britainia Handia. 2003.

**Otsailak 9:** *Kitchen Stories*, Bent Hamer. Norvegia-Suedia. 2003.

**Otsailak 16:** *Nadie sabe*, Hirokazu Kore-eda. Japonia, 2004.

**Otsailak 23:** *Blueberry, Esprientzia sekretua*, Jan Kounen. (Jatorrizko bertsoan eta euskarazko azpitoluekin eskainiko da). Frantzia-Mexiko-Bretainia Handia, 2003.

**Martxoak 9:** *Madame Brouette*, Moussa Sene Absa. Senegal-Kanada-Frantzia, 2002.

**Martxoak 23:** *L'Enfant*, Jean Pierre Dardenne eta Luc Dardenne. Belgika-Frantzia, 2005.

**Apirilak 6:** *Sud Express*, Chema de la Peña eta Gabriel Velazquez. Espainia-Portugal, 2005.

## Beasain-Ordizia

### Antzerki Garaia

Gaur bertan, urtarrilak 13, hasiko da 2006. urteko Antzerki Garaia. Beasaingo eta Ordiziako udalek antolatuta, apirilaren 28ra bitartean, zortzi antzerki emanaldi izango dira.

Sarrerak 10 euro balioko du ('Todos nacemos vascos' saiokoak 15 euro). Denboraldi osorako abonoak 60 eurotan eros daitezke leihatiletan, edo Ordiziako Barrenan eta Beasaingo Udaleko Kultura Sailean.

Jarraian duzue denboraldiko egitaraua:

**Urtarrilak 13:** Kukai-Tantta taldearen 'Otehitzari biraka', 22:15ean, Beasaingo Usurbe Antzokian. Euskaraz.

**Urtarrilak 27:** Txalo Teatroak taldearen 'El hombre de los dados', 22:15ean, Ordiziako Herri Antzokian. Gazteleraz.

**Otsailak 10:** T(arte)an taldearen 'Ezin dut egia esan', 22:15ean, Beasaingo Usurbe Antzokian. Euskaraz.

**Otsailak 23:** Tantta Teatroak taldearen 'El florido pensil', 22:15ean, Ordiziako Herri Antzokian. Gazteleraz.

**Martxoak 10:** Glu-glu Produksioak-en 'Todos nacemos vascos', 22:15ean, Beasaingo Usurbe Antzokian. Gazteleraz.

**Martxoak 24:** Fuegos Fatuos Teatroak taldearen 'Cincuentones', 22:15ean, Beasango Usurbe Antzokian. Gazteleraz.

**Apirilak 7:** Ez dok hiru bikoteatroak-en 'Larru haizetara', 22:15ean, Ordiziako Herri Antzokian. Euskaraz.

**Apirilak 28:** Pok produkzioak-en, 'Ongi ibili', 22:15ean, Ordiziako Herri Antzokian. Euskaraz.



## Beasain

### Garingo jaiak

Urtarrilaren 21ean eta 22an ospatuko dira San Sebastian jaiak Garin auzoan. Jarraian duzue auzotarrek prestatutako egitaraua:

**Urtarrilak 21: 13:00etan**, kanpai bueltak eta altxafuegoak jaiet hasiera emanez. **14:00etan**, herri bazkaria Auzo elkartean. **Ondoren**, mus txapelketa. **18:00etan**, haur jolasak pilotalekuan. **Arratsalde-iluntzean**, Ansoregi eta Larrañaga trikitilariak.

**Urtarrilak 22: 10:30ean**, goiz erezia Beasaingo txistulariekin. **11:00etan**, Meza nagusia. Ondoren, auzoko zaharrenei omenaldia. **12:30ean**, Ipiñarrieta eta Urruztiko idi-pareen indar erakustaldia. **Eguedian**, Beasaingo udal txistulariak.

**IBILGAILUAK**

**salgai**

**Golf TDI** autoa salgai, NA-AS, egoera oso onean, extrekin. 649052806.

**Audi A-4** salgai, 1.9 tdi. SS-BC. 665713003 - 635753703.

**Nissan Terrano II** salgai. 11 urtekoa. Egoera onean. 615703430.

**Ford Transit** kutxaduna salgai. MMA 3500 kg. 6 urte. Egoera paregabean. 605725903.

**Audi A2 TDI** salgai. 1.4, 75 zaldi. Egoera oso onean, 2001ekoa. 11.000 euro. 607512311.

**Golf III** salgai, 1.8 GL, gasolina. SS-AN. 689585853.

**Audi 8** salgai. Extra guztiakin. Oso ongi zaindua. Prezio interesgarria. 628264441. Oskar.

**Nissan Terrano II SR** salgai. 2.7 td, 125 zaldi, 7 urte. Egoera ezin hobean. 618923009.

**Volkswagen Bora** 1.9 tdi / 110 salgai. Trendline. SS-BJ. 2000. urtekoa. Klimatizadorea. Garajeen egondakoa. Grisa. 620711655. Jesus.

**Opel Corsa GSI** salgai. SS-AL. Txuria eta sapaiarekin. Egoera nahiko onean. Prezio interesgarria. 680776404.

**Citroen Xsara** salgai. 16 v, 2004koa, 4.500 km. Egoera ezin hobean. 943887765 - 667250426. 18:00ak aurretik deitu.

**Seat Ibiza Sport 1.9** dieselala salgai. 130 zaldi. 2003. urtearen erdialdekoa. Klima, esp... Oso egoera onean. 665701552.

**Renault Clio 1.2 RT** salgai. 1993koa, 5 ate, oso egoera onean. 1.200 euro. Arratsaldez deitu. 615793937.

**Audi A3** Tdi salgai. 100 zaldi. 3 atekoa. Beltza. 2002koa. Mantenimendu liburua eguneratua. Egoera oso onean. 13.000 euro. 615758441.

**Kate M motorra**, exc 400, salgai. 2001-2002koa. Egoera oso onean. 635716798.

**Peugeot 306** turbodiesel salgai. SS-AV. 4.800 euro, negozioagarriak. 652755704.

**PABILOIAK**

**errentan eman**

**Beasaingo Salbatoren**, 300 m<sup>2</sup>ko pabilioia errentan ematen da. Ekipatua. 662331550.

**Beasaingo Katea auzoan**, 120 m<sup>2</sup>ko pabilioia errentan ematen da. Autoen konponketarako aproposa. 943027065.

**LURSAILAK**

**errentan eman**

**Lazkao erdian**, herrigunetik aparte dagoen 175 m<sup>2</sup>ko lursail laukia eta laua alokatzen da. Ezin hobea baratzean edo antzekoan jarduteko. 60 euro hilean (negozia daiteke). 630608227.

**ETXEBIZITZAK**

**salgai**

**Donostian**, Antigua auzoan (Gurutze) etxea salgai. 2 logela, komuna, sukalde handia, 2 terraza, berogailua. Igogailurik gabe. 56.000.000 pezeta. www.orbaraetxe.com. 605766057.

**errentan hartu**

**Goierriin**, pisua alokatu nahi du haurrak dituen senar-emazte bikote batek. 20:00etatik aurrera deitu. 652757877 - 697717189.

**Idiazabal**. Herriko bikote batek etxea erosi edo alokatu nahiko luke. 659836386.

**Alokatzeko edo konpartitzeko** pisu bila nabil. 650412120.

**elkarbanatzeko**

**Urretxu edo Zumarragan** pisua konpartituko nuke. 652729563.

**Beasainen** pisua konpartitzeko pertsona bat behar da. Goizez edo 20:00etatik aurrera deitu. 679865826.

**GARAJEAK**

**errentan eman**

**Beasain erdian**, garaje itxia alokatzen da. 943801164.

**Idiazabalgo Kale Nagusian**, Kutxa azpiko garajeetan, kotxearentzako plaza alokatzen da. 658747901.

**Ordizia erdialdean**, garaje itxia alokatzen da. 665756560.

**LAPURRETA**

**Beasainen, cocker txakurkumea** ostu zuten orain dela ia hilabete. Gorria da, buruan eta bular aldean txuria duena, eta bi hilabete eta erdi ditu. Saria emango zaio lapurraren berri ematen duenari. 943888068.

**GALDUTAKO OBJEKTUAK**

**Fular** bat galdu nuen abenduaren 3an, Zaldibia edo Ordizian. 943881077.

**Debaldeko iragarkiak:**

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com



**Alpe**  
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoena

Mariarats 10 Beasain  
Tfnoa 943 88 86 84



**Ikaskide**  
irakaskuntza zerbitzuak

INGELERA MINTZA PRAKTIKA  
URTARRILEAN

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Talde txikiak
- ✓ Cambridge azterketak: KET, PET, FIRST CERTIFICATE...

Joan Iturralde, 5  
943 160 120  
Beasain  
www.ikaskide.net



**Zunzunegi**  
Oinetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO  
943 087 913



## BESTELAKOAK

### salgai

**Aspes arropa garbigailua** salgai. Egoera onean. 130 euro. 657777042.

Egur nahiz gasoleoarekin funtzionatzen duen kalefaziotarako **kaldera** (Roca) eta 100 litroko termoa salgai. Egoera onean. 615006038.

**Atomic Rafe Carving** eskiak salgai, 1,70m, 2 urte, 250 euro. 943888601 (gauzez deitu).

**Eskiatzeko botak** salgai. Salomon markakoak, beltzak, berri-berriak. 600225673.

**Ura berotzeko berogailua** saltzen da. Oso egoera onean. 670422051.

**Solarium horizontala** salgai. Oso baldintza onetan. 645730723.

**DMC hariak**, gurutze puntua egiteko hariak saltzen ditut, dendako prezio erdian. [lizapil@hotmail.com](mailto:lizapil@hotmail.com)

**Eskiatzeko botak** salgai. 24,5 neurria (oineko 36-37). Egoera onean. 653709620.

**Su egurra** salgai. 943160786.

**Trial sineko** txirrindua salgai, Montty markakoa. 300 euro. 608879439.

**Haur kotxea** salgai. Ia erabili gabea, berri-berria eta osagarri guztiekin. Kapazoa, kukoa, silla, zakua eta burbuja. 130 euro. 626503990.

**Ordenagailua**, Windows XT, salgai. 3 urtekoa. 675710799.

**3.000 litroko zisterna**, ia berria, salgai. 948539381 - 616537765.

**Logela** salgai. 1,35eko ohea, somierra, 4 ateko armairua (1,90 m.), 2 mesanotxe, 3 kaxoi eta ispiludun tokadorea eta aulkia. Berria bezala dago. 540 euro. 20:00etatik aurrera deitu. 636370101.

**Egongelako haritzeko altzari** modularra salgai. Zabalera: 2'11, altuera: 2'22. Egoera onean. 667224676.

3 motorrentzako **erremolke**a salgai. Berri-berria. Dena galbanizatua. 635716798.

**Belarra bueltatzeko eta biltzeko makina** salgai. Erremolke, gurpil bikoitzarekin eta bolketarekin. 635716798 - 943085222.

## ANIMALIAK

### oparitzeko

**Artxain txakur emea** opari, hiru urtekoa. Iletsua, gari kolore argikoa, oso polita eta leiala. Honekin batera, kruzeko txakur txikia ere opari, beltza eta oso salatua. 943888068.

### salgai

**Setter** txakurra salgai, 8 urtekoa. Merke. 943160015.

3 hilabeteko **ardi txakurkumea** salgai. Oso polita. Prezio interesgarria. 943885102.

## LANA

### eskaerak

**Zerbitzaria** behar da erretegi batean lan egiteko. 615700408.

**Dendan** lan egiteko, pertsona euskalduna behar da. 658744184.

**Dantza irakaslea** behar du Ordiziako Urdaneta dantza taldeak. Astean 6 ordurako. 658749379.

**Sukaldari laguntzailea** behar da ikaztegiako sagardotegian. 607365743.

**Promotoreak eta apalak betetzeko** pertsona behar dugu supermerkatuetan lan egiteko. 943321289. 10:00etatik 12:00etara deitu.

**Sukaldaria** behar da. 615745924.

**Pintore autonomoa** behar da, Goierrin lan egiteko. 608879439.

**Tabernaria** behar da, Lazkao Herriko tabernan. 669154819.

**Begiralea** behar da Antzuola-ko Gazte Gunean, asteburuetan lan egiteko. 943766246. Lierni.

## eskaintzak

**Neska arduratsua** eskaintzen da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 660635956.

**Adineko pertsonak** zaintzeko prest nago, arratsaldeko 8etatik goizeko 9etara. 617769791.

**Magisteritza** ikasitako neska euskaldun batek, arratsaldean haurrak zaindiko litzuke. Arratsaldetan deitu. 650115451.

**Neska arduratsua** eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu eta adinekoak zaintzeko. 647896460.

**Mutil gaztea**, dokumentuekin, edozein lanetan aritzeko prest dago. 617426339.

**Garbiketan** lan egingo nuke, goizean, lehenengo orduan, ordu eta erdi edo bi orduz. 636979559.

**Ostalaritzan** lan egiteko prest dago Ordiziako emakumea. 618151320,

**Asteburuetarako** sukaldari laguntzaile, dendari edo beste zerbaitetan lan egiteko prest dagoen emakumea naiz. 628932435.

**Emakumezkoa** prest dago haurrak edo agureak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 620743076.

**Lan bila dabilen**, neska gaztea naiz. Edozertan lan egingo nuke. 676620931.



Tel.:  
943 887 048

Faxa:  
943 882 801

Telleri z/g

ORMAIZTEGI

**OSINALDE  
KARROZERIA**

## ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,  
alineazioa,  
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,  
engrasea

Frenu pastilak, tubo  
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



### Ormaiztegin 1946ko misioak

Ander Iurrita ormaiztegiarrak utzi digu argazkia. Berak adierazi digunez, argazkian agertzen diren 310 pertsonetik 220 inguru identifikatuta ditu, herriko adinekoei esker. Denak esatea zaila da baina jarraian dituzuenak, lehen lerroan, ezkerretik eskuinera azaltzen direnak dira: Angeles Imaz, ezezaguna, Pepita Aguado, Maria Jesus Iurrita, Belen Aranes, ezezaguna, Miren Iurrita, Rosario Iurrita, Pili Murua, Antonio Mujika, Bixente Guerra, Jose Inazio Oartzabal, ezezaguna, Jabier Urkiola, Iñaki Apaolaza, Jose Luis Egiazabal, Jose Mari Elozegi, Pako Julia, Jose Luis Elorza eta Jose Pildain.

**Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.**



**SILVIA MIRAS CASASAYAS**  
ODONTOLOGOA  
KOL. Zka: 649 RPS: 144/02  
TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



**Ikaskide**  
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5  
solairuartera  
943 160 120  
Beasain  
ikaskide@ikaskide.net  
www.ikaskide.net

ENPRESARITZA: ✓ Finantza matematika  
✓ Estatistika  
✓ Kontabilitatea  
✓ Kalkulua, etab.

ESKOLA LAGUNTZA  
INFORMATIKA  
INGELERA



**Jauregi**  
TOLDOAK




INSTALATZAILE OFIZIALA



**IAZA** LLAZAPLUS ZENTROA  
T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



**MUJIKA**  
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94  
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

autonomoentzako eta mikroenpresetarako  
doako **mintegiak**

Goierri  
urtarrilak 26  
ORDIZIA  
Goierri Lanbide Eskola

Orduetgia:  
**18:00-20:00**

## Informatika nire enpresarako: Askea ala ordaindutakoa?

Aplikazio informatikoen merkatua oso zabala da, baina, **nire enpresarako softwarea** hautatzerakoan zein da kontuan izan behar dudan irizpidea? Zein **sistema eragile** hautatuko dut? Ze **nabigatzaile**?, bestelako ze **programa ofimatiko**? Galdera hauei eta suertatu daitezkeen beste hainbateri erantzuteko asmoz zenbait irizpide emango dizkizugu mintegi honetan, eta **zure enpresan doan erabiltzeko tresnak dituen CDa ere emango dizugu.**

Informatzeko eta izena emateko:

**943 747 314**

[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)

[cursos@miramondigital.com](mailto:cursos@miramondigital.com)

Antolatzailea:



**Miramon**  
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aukundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



euskadi  
informazio giza eta en la sociedad de la información

e-gipuzkoa

SPRI



Eguneroko menua  
astehenetik ostiralera  
**Ospakizunak**  
**Karta**

# IZKIÑA

## Jatetxea

943 802 169 - 943 800 251 - SEGURA



suquia

sukaldeak

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

**ORDIZIA** 20240 GIPUZKOA

e-posta: [suquia@jazzfree.com](mailto:suquia@jazzfree.com)

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

**BEASAIN** 20200 GIPUZKOA

# Gozatzeko sukaldeak



Gure izatea kalitatea eta zerbitzua